

Arartekoaren 2016S-34-16 Ebazpena, 2016ko abenduaren 2koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena berrikusteko.

Aurrekariak

1. Arartekoak XXX andreak sustatutako kexa bat izapidetzea onartu zuen; kexa hori jarri zuen titular den diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi zizkiotelako.

Kexagilea dibortziatuta dago eta azaldu zuen 7 eta 9 urteko bi seme-alaba adingabeen zaintza esleituta zeukala modu eskusiboan; hala, seme-alabetako batek aitortutako % 47ko ezgaitasun-maila dauka (horregatik, 300 euro inguruko prestazio bat jasotzen du). Bestetik, adierazi zuen, atzerrikoa denez, ez duela familiaren babesik.

2. Azaldu zuen bezala, 2015eko azaroan, lanpostu bat eskaini zioten Sestaoko Udalean 5 orduz lan egiteko segurtasuneko zaintzaile gisa, txanda desberdinekin aste bakoitzean, goizez edo arratsalde; arratsaldeko txanda 14:30etik 19:30erakoa da.

Bere seme-alaba adingabeen beharrak hartu zituen kontuan, batez ere ezgaitasuna duen semearenak; izan ere, bere semearen eskolako ordutegia, asteko 3 egunetan, 14:30ean amaitzen da. Horrela, saiatu zen ordutegia negoziatzen, bere jardunaldia goizeko txandan garatzeko kontratuaren indarraldian. Hala ere, udalak ezezkoa eman zuenez eta ezin zuenez bere familia-bizitza udalbatzak proposatutako ordutegiarekin bateratu, azkenean lan-eskaintza ukatu behar izan zuen.

Era berean, adierazi du egun batzuk lehenago "motu propio" aurkeztu zuela idazki bat Lanbiden, erabakiaren arrazoiak jakinaraziz eta azalduz. 2015-12-21ean joan zen bere erreferentziatzko bulegora eta beran zuzenean eman zioten prestazioak iraungitzeko ebazpena.

2016-01-05ean, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtso bat aurkeztu zuen, azkenaldian ebatzi dena.

3. Azaldutako kexari dagokion izapidea emateko xedez, Arartekoak informazio-eskaera egin zuen. Bertan, azpimarratu zen kexagileak guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen zuela eta bi seme-alaba zituela bere kargu; gainera, horietako batek ezgaitasuna du. Horregatik, Lanbideri gogorarazi zitzaion apirilaren 8ko gure 2/2015 Gomendio Orokorraren edukia, hau da, politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari buruzkoa; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionean. Honakoa adierazi zen bigarren gogoetan:

Horri dagokionez, bereziki azpimarratu zen gomendio orokor horretako bigarren gogoeta, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko eta eteteko kasuei buruzkoa:

“Haurraren interes nagusia kontuan hartzeak haurraren beharrianak egoki goratzea dakar. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek haurraren edukiko dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuen aurrean”.

4. Horretarako igorritako txosten baten bidez, Lanbidek Arartekoari eskatutako informazioa helarazi zion eta adierazi zion LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2015eko abenduaren 19ko ebazpenaren bidez diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungi zela, arrazoi honengatik: *“behin lanpostu egoki bati uko egiteagatik, arrazoi justifikaturik gabe”.*

Lanbidek jakinarazi du, aipatutako ebazpena eragin zuen 2014/RGI/007415 espedientearen berrikuspena izapidetzen zen bitartean interesdunak idazki bat aurkeztu zuela “Jogaleak” lanpostuaren ukapenari buruz. Lanpostu hori Sestao 2015 enplegu-planaren barruan sartzen da, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan garatzen dena.

Aipatutako idazkian, 2015eko azaroaren 25ean aurkeztutakoa, XXX andreak haxe jaso zuen: *“renuncio al mencionado empleo exponiendo que no puedo cumplir el horario del puesto de trabajo, por cargas familiares (dos hijos)”.*

Horrez gain, Lanbideren txostenean adierazten da Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua eskubidea iraungitzeko arrazoen artean izendatu duela honakoa: *“(…) indarreko legediaren arabera egokia den lanpostu bati arrazoi justifikaturik gabe behin uko egitea, edo diru-sarrerak handitu zitzakeen lan-baldintzen hobekuntza bat”.*

Aurreko xedapenean oinarrituz eta kontuan hartuz interesdunak espedientearen instrukzioan aurkeztutako idazkia, iraungitzeko ebazpena eman zen 2015eko abenduaren 19an; hala, 2016ko urtarrilaren 5ean, XXX aukerako berraztertze-errekurtso bat jarri zuen.

5. Kexa-espediente hau izapidetzen zen bitartean, aipatutako errekurtsoren ebazpena eman da; Lanbideren zuzenbideko hirugarren oinarrian, interesdunak alegatutako arrazoiei buruzkoa, haxe jasotzen da:

“(…) aunque estas situaciones sean reales, no son con carácter general en el ámbito de las prestaciones sociales (desempleo, prestaciones públicas...) causa justificativa de rechazo a un empleo ofertado. Entre las obligaciones asumidas por

los titulares y beneficiarios de este tipo de prestaciones se encuentra el compromiso de buscar trabajo de forma activa y estar en disposición de aceptar las ofertas de colocación que reciba, por lo que no pueden alegar el cumplimiento de otros deberes familiares”.

Lanbidek baieztapen hori babesten du, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1995eko otsailaren 8ko Epaiarekin eta Gaztela-Mantxako Justiziako Auzitegi Gorenaren 2003ko maiatzaren 7ko Epaiarekin; epai horiek langabeziagatik prestazioak ematen diren kasuak aipatzen dituzte eta, Lanbideren ustez, aztertzen ari garen kasura helaraz daitezke.

Aipatutako epaietan, hauxe adierazten da: *“(...) la protección por la contingencia de desempleo no solamente exige la voluntad de querer trabajar, sino también la disponibilidad al efecto, lo que excluye que circunstancias normales personales o familiares puedan esgrimirse como causa de rechazo de trabajo adecuado...”*.

Horrenbestez, Lanbidek uste du errekurritutako ebazpena zuzenbidera egokitzen dela eta interesdunak jarritako errekurtsioa ezetsi du, prestazioa iraungitzeko ebazpena baieztatuz, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua aplikatzearen ondorioz.

Gogoetak

1. Iraungitzeko kausa egon dadin, 28.1.i) artikulua hori egitatezko oinarri batetik abiatzen da, Lanbidek kasu honetan ahaztu duena, hau da, enplegu egokia ukatzeko **“justifikatutako kausarik”** ez egotea.

Zentzu berean, 147/2010 Dekretuaren 49.i) artikulua aipatzen da, zuzenbidea iraungitzeko kausak jasotzean.

18/2008 Legeak eta 147/2010 Dekretuak ez dute definitzen zer hartu behar den “justifikatutako kausatzat” ondorio hauetarako. Horrekin, Lanbidek askatasunez hautemateko eta eskumeneko marjina duela defendatu ahalko zen, ez arbitraltasunekoa, enplegu egokiaren ukapena justifikatuta zegoen edo ez ezartzerakoan.

Hala ere, 147/2010 Dekretuaren 12.2.b) artikuluan “enplegu egokitzat” hartu behar dena adierazten da; izan ere, hauxe jasotzen da: *“enplegu egokitzat joko da pertsonaren ohiko lanbidearekin bat datorrena, edo beste edozein, bere gaitasun fisikoetara eta prestakuntzara egokitzuz, lanpostua eskaintzen zaion sektorean ezarritako soldataren baliokidea den soldata dakarrena eta ohiko bizilekua aldatzea ez dakarrena, enplegu berriaren tokian bizitoki egokia edukitzeko aukera duenean salbu”.*

2. Ikuspuntu horretatik, ez da zaila onartzea Sestaoko Udalak XXXri zaintzaile gisa eskaintako enplegua, lanaldi partzialekoa (5 ordu egunean), hasiera batean bere gaitasun fisikoetara eta prestakuntzara egokitzeko betekizun objektiboak betetzen zituela. Horrez gain, lanpostu horrek sektore horri dagokion ordainsaria onartuta dauka.

Ikuspuntu objektibo eta orokor batetik egokia dela onartu arren, lan-eskaintza egiten zaion pertsonarekin lotutako alderdi subjektiboek enplegua ukatzea justifikatu dezakete.

Horri dagokionez, Lanbidek langabezian egoteagatik ematen diren prestazioen inguruko zenbait epai aipatzen ditu. Horiek, adierazi den bezala, hauxe ondorioztatzen dute lan egiteko eskuragarritasunari dagokionez: *“excluye que circunstancias normales personales o familiares puedan esgrimirse como causa de rechazo de trabajo adecuado”*.

Hala eta guztiz ere, aipatutako epaiek langabezian egoteagatik ematen den prestazioa aipatzen dute eta hori garrantzitsua da ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginean jasotako manuak aplikatu behar zaizkiolako.

Horrela, lege-testu horren 231.1 artikulua *“kokapen egokiaren”* kontzeptua arautzen du eta honela definitzen du: *“(…) la profesión demandada por el trabajador y también aquella que se corresponda con su profesión habitual o cualquier otra que se ajuste a sus aptitudes físicas y formativas”*.

Horrez gain, hauxe adierazten du:

“La colocación que se ofrezca al trabajador se entenderá adecuada teniendo en cuenta la duración del trabajo, indefinida o temporal, o de la jornada de trabajo, a tiempo completo o parcial.

Para la aplicación de lo previsto en los párrafos anteriores el Servicio Público de Empleo competente tendrá en cuenta las circunstancias profesionales y personales del desempleado, así como la conciliación de su vida familiar y laboral (...).”

Hori da Estatu mailan langabeziagatik ematen den prestazioaren araudia; Arartekoaren ustez, horrekin ondoriozta daiteke epaitutako kasuetan epaitegiak alderdi horiek aztertu zituela nahitaez. Beraz, azkenean prestazioen titularraren asmoen aurkako epaia eman zuen, eskaintako enpleguaren ukapena justifikatzeko egoera pertsonalik eta profesionalik ez zegoelako, baita hori onartzeak familia-bizitza bateratzean eraginik ez zuelako ere.

3. Adierazi den bezala, autonomi-erkidegoko araudiak ez du definitzen zer ulertzen den enplegu egoki bat ukatzeko *“justifikatutako kausa”* gisa, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzea saihesteko.

Hala ere, XXX andrearen egoera pertsonalak aztertzen badira, ikus daiteke guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen duela. Horrez gain, bere bi seme-alaba adingabeen zaintza modu eskusiboan dauka esleituta eta horietako batek autismoa dauka; % 47ko mailako ezgaitasuna dauka eta bere eskola-ordutegia ez dator bat bere amari eskaintako lanpostuaren ordutegiarekin. Gainera, kexagileak uneoro erakutsi zuen enplegurako eskuragarritasuna; izan ere, laneko elkarrizketara joan zen eta enplegatzaileari beren-beregi eskatu zion beti goizeko txandan lan egiteko, bere familia-bizitza bateratu ahal izateko, baina ez zuen lortu. Hori dela-eta, Arartekoaren ustez, esan daiteke, kasu zehatz honetan, hasiera batean egokia den lanpostu bat ukatu zela, ikuspuntu objektibo batetik, justifikatutako arrazoi batengatik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularraren egoera subjektiboak kontuan hartuz. Horrenbestez, ez da ematen 18/2008 Legearen 28.1.i artikuluan aurreikusitako iraungitzeko kausa.

4. Azaldutakoaz gain, azpimarratu behar da kexagileak guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen duela eta adingabe bi seme-alaba dituela bere kargu. Horrela, kasu honetan, adingabearen interes gorena hartu behar da kontuan lehentasunez bizikidetzaren unitatearen betekizunak eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko neurriak hartzerako orduan.

Horrela, Arartekoak apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean adierazi zuen bezala, *“haurraren interes nagusia kontuan hartzeak haurraren beharrezkoak egoki goratzea dakar. Hitzarmenak¹ aitortutako eskubide guztiak osoki eta eraginkorki gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurraren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta. Ikusten ari ginen bezala, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua”*.

Ikuspuntu horretatik, erakunde honen ustez, bizikidetzaren unitatean adingabeak daudenean, prestazioak eteteko edo azkentzeko erabakia hartu aurretik, bizikidetzaren unitatean diru-sarrerarik ezak haurren bizitzan izan dezakeen eragina aintzat hartu beharko litzateke, eta erabakia hartzean, adingabearen interesari lehentasuna eman ote dion aztertu beharko litzateke. Izan ere, prestazioak eteteko edo iraungitzeko prozedura bat bukatzean, interes hori babeste aldera prestaziorako (edo prestazioetarako) eskubidea mantendu behar dela ondorioztatuz gero, mantendu beharko litzateke, aldi berean, betebeharra ez betetzeari dagokion zigortzeko prozedura hastea erabakitzen bada ere.

Interpretaziozko printzipio juridiko hori kontuan hartu behar da, are gehiago, kasu zehatz honetan bezalaxe, prestazioen titularrak lan-eskaintza ukatzen duenean lanpostua bi seme-alabak zaintzearekin bateratzea zaila delako, bere egoera pertsonalen ondorioz, hau da, dibortziatuta dagoela eta familiaren babesik ez duela.

¹ Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (Espainian, 1990eko azaroaren 30eko erabakiaren bidez berretsita) gogora ekarri.

Hala eta guztiz ere, ez da aurreikusten 18/2008 Legeak familia-adiskidetzeko zenbait beharrei erantzutea. Kasu honetan, prestazioa iraungitzeak eta urtebetez eskatzeko ezintasunak guraso bakarreko familia hau, adingabe desgaitu batekin, txirotasun eta gizarte-bazterketa egoera batera eramango dute. Horrek legegilearen nahia urratzea dakar, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 1. artikulua: *“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten”*.

Arartekoaren ustez, aztertutako kasuan, enplegua ukatzea justifikatzen duten arrazoiak daude. Beraz, ez legoke iraungitzeko arrazoirik egongo.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, honako gomendio hau egiten da:

IRADOKIZUNA

Arartekoak, azaldutako gogoetak kontuan hartuz, Lanbideri iradokitzen dio, aukeratzeko duen marjinan oinarrituz, titularraren diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena berrikusteko.